



Hezkuntza publikoan lan baldintzak hobetu. Hemen eta orain erabakita.

Hezkuntza publikoko grebak

Hezkuntza publikoan lan egiten dugun Sukalde eta Garbiketako, Haurreskolak Partzuergoko langile zein Irakasleak greba ziklo batera gaude deituak. LAB, STEILAS, ELA eta CCOO sindikatuek urtarrilerako eta otsailerako deitu gaituzte grebetara.

Izan ere, 15 urte daramatzagu gure lan baldintzak arautzen dituzten hitzarmenak eguneratu gabe. Eta honek eskoletan gure lana modu egokian egitea eragozten digu.

Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak milaka bileratan enredatzen gaitu, baina hezkuntza publikoko langileon lan baldintzak eta eskolen egoera hobetzeko beharrezkoak diren baliabide, inbertsio eta neurriak ez ditu proposatzen.

Hauek dira grebetan aldarrikatzen ari garen **aldarrikapen nagusiak**:

- **Lan-zamak** arintzeko neurri zehatzak adostea.
- Erretiroa aurreratzeko plantillen **gazteberritze** plana garatzea.
- Galdutako **erosahalmena** berreskuratzea.
- **Enplegu publikoa egonkortzea** eta jaiotza tasaren gorabeherak aprobetxatuz aldebakarrez erabakitzen ari diren ikastetxe publikoen fusio, itxiera eta enplegu suntsiketa gelditzea.
- Langileon **lan-osasuna** bermatzeko azterketa eta neurri zuzentzaile adostuak ezartzea.
- Hezkuntza publikoko sistema osoa **euskaldunduko** duen hezkuntza politikak abiaraztea.
- Kalitatezko **berdintasun eta hezkidetz**a plan egonkorrak garatu ahal izateko baliabideak jartzea.

Eta hauek deitu ditugun **greba egunak**:

- **Irakasleak**: urtarrilak 22-23 eta otsailak 26-27
- **Haurreskolak Partzuergoa**: urtarrilak 28-29 eta otsailak 12-13
- **Sukalde eta Garbiketako langileak**: urtarrilak 30-31 eta otsailak 19-20

Dinamika honen baitan abian jarriko ditugun ekimen eta mobilizazioekin bat egitera animatzen dugu hezkuntza komunitate osoa, langile, familia zein ikasle.

LAB

steilas

ELA
EUSKAL SINDIKATUA

CCOO
irakaskuntza